



euskalmendizalefederazioa

FEDERACION VASCA DE MONTAÑA
BASQUE MOUNTAINEERING FEDERATION

2023KO DIRULAGUNTZETARAKO DEIALDIA EMF-KO KLUB ETA KIROL-TALDEENTZAT

Deialdi honen helburua da EMF osatzen duten klubek eta kirol-taldeek 2023an egindako jarduera garrantzitsuak finantzatzen laguntzea.

EMFk deialdi honen berri emango die interesdun guztiei, bere web orriaren bidez: <https://emf.eus/>, bai eta mendi-taldeei bidalitako zirkular baten bidez ere.

1.- DIRULAGUNTZAK ESKURATU AHAL IZATEKO BALDINTZAK:

- EMFko kide diren klub eta kirol-talde guztiek jaso ahal izango dituzte dirulaguntza hauek, baldin eta indarreko urte horretan gutxienez 10 federazio-alta badituzte.
- Jarduera guztiek EMFn federatutako pertsona guztientzat irekiak izan behar dute.
- EMFren logoa argitaratu behar da diruz lagundutako jardueraren kartel eta iragarkietan.
- Ez dira diruz lagunduko mendiko klubak edo kirol-taldeen urteko jarduera-programa arruntak (zeharkaldiak, ibilbideak, igoerak...).
- Dirulaguntzak eman gabe gera daitezke eskabideek deialdi honetan azaldutako baldintzak betetzen ez badituzte.

2.- AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA:

- Klubaren edo kirol-taldearen **dirulaguntza-eskabidea**.
- Egindako jardueraren **memoria-laburpena**: jarduera mota eta aurreikusitako helburuak. 2 eta 4 orrialde artean, argazkiren batekin.
- Parte-hartzaileen kopurua (EMFn federatuak eta federatu gabeak).
- Datak.
- Garatutako programa.
- Beste erakunde edo entitate pribatu batzuetatik jasotako laguntzen zerrenda, hala badagokio.
- **Memoria ekonomiko banakatua**: ondo zehaztutako diru-sarrerak eta gastuak. **Fakturen kopiak ere erantsi beharko dira**.
- Zabalkundea komunikabideetan (prentsa-dosierra) eta sare sozialetan.
- Antolaketa-taldea.
- Jardueraren helburuak eta emaitzak.
- Jarduera diruz laguntzeko arrazoiak.
- Dirulaguntza emanez gero, diru-sarrera egiteko **kontu-zenbaki osoa**.

Edozein motatako laguntzak ezkutatzuz gero, EMFk emandako dirulaguntza bertan behera gelditu ahal izango da, eta, hala badagokio, itzuli egin beharko da.

3.- HAUTAKETARAKO IRIZPIDEAK:

Dirulaguntzak emateko 3 talde zehaztu dira:

1. TALDEA

- Goi-mailako jarduerak.
- Lehiaketetarako taldeak sortzea (eskia, eskalada, mendiko lasterketak, ibilketa nordikoa).
- Federazioko jarduerak antolatzea.

2. TALDEA

- Kirol-ekipamendura bideratutako jarduerak.
- GRak, PRak eta SLak mantentzea.
- Segurtasun-materiala erostea.
- Mendiko prestakuntza-jarduerak antolatzea.
- Mendizaletasunarekin zerikusia duten jarduera garrantzitsuak edo apartekoak.
- Mendiko segurtasunera bideratutako jarduerak.

3. TALDEA

- Mendiko kirola sustatzeko eta zabaltzeko jarduerak.
- Mendiko irisgarritasun eta babesarekin lotutako jarduera garrantzitsuak.
- Mendian emakumearen irudia sustatzeko jarduera garrantzitsuak.
- Natura eta ingurumena babesteko jarduerak.
- Mendizaletasunarekin eta Euskal Herriko mendien sustapenarekin zerikusia duten jarduera garrantzitsuak edo apartekoak.
- Ikus-entzunezko jarduerak.

4.- BANAKETA:

Programa honi 12.000 € esleitu zaizkio guztira.

Aurreko puntuan zehaztutako hiru taldeetako batean **jarduera bakar bat** diruz lagunduko da klub bakoitzeko.

Dirulaguntzen Batzordeak aurkeztutako eskabide guztiak aztertu eta baloratuko ditu.

5.- AURKEZTEKO DATA ETA EPEA:

Eskaerak EMFren egoitzan aurkeztu beharko dira, **2024ko otsailaren 28ra arte**, eta "Klub edo Kirol Taldeentzako Dirulaguntzen Batzordeari" zuzendu beharko zaizkio. Urte naturalaren barruan baina data horren ondoren egindako jarduerak hurrengo urtean jaso ahal izango dute dirulaguntza.

Eskaerak posta arruntaz edo elektronikoz helaraziko dira EMFra, helbide honetara:

EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA

Amadeo García de Salazar plaza 2, 2.a 01007 Vitoria-Gasteiz, Araba

Edo posta elektronikoz, helbide honetara: vitoria@emf.eus

6.- NOLA ORDAINDUKO DA DIRULAGUNTZA?

Batzordea bildu ondoren, **martxoaren 29rako jakinaraziko zaie klubei** dirulaguntza eman den ala ez, eta 15 eguneko epean dirulaguntza ordainduko zaie eskabidea aurkeztean emandako kontu-zenbakian.

7.- INTERPRETAZIOA:

Araudi hau interpretatzeko zalantzak edo desadostasunak izanez gero, EMFren Batzordeari edo hark eskuordetutako pertsonari ahalmena ematen zaio horiek interpretatzeko, eta erabakia ezin da errekurritu federazio bidez.